



2349/2016 EBAZPENA, azaroaren 8koa, BILBAO-BASURTO ESIko zuzendari gerentearena, Rosa María González-Pinto Díaz andrea izendapen askez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBAO-BASURTO ESIko Administrazio eta Kudeaketako atalburua A2 izendatzeko.

Irailaren 15eko 2081/2016 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBAO-BASURTO ESIko Kudeaketa Ekonomikoko Zuzendaritzan (Kontratazio Administratiboko Antolamendu Unitatea) Administrazio eta Kudeaketako atalburua A2 lanpostu bat izendapen askez betetzeko.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Rosa María González-Pinto Díaz andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori bera izendapen askez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBAO-BASURTO ESIko Administrazio eta Kudeaketako atalburua A2 izendatzea.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko Hirugarren Arau Komuneko 28. artikuluan, Osakidetza lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBAZTEN DUT

Lehen.- Rosa María González-Pinto Díaz andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBAO-BASURTO ESIko Administrazio eta Kudeaketako atalburua A2 izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek 2016ko azaroaren 14tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.- Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuaren ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokienez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta Osakidetza berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunari eta BILBAO-BASURTO ESIko Kudeaketa Ekonomikoko Zuzendaritzari eta Pertsonaleko Zuzendaritzari jakinaraztea.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa ezar dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, haren iragarkia EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat.

Bilbon, bi mila eta hamaseiko azaroaren zortzian.

BILBAO-BASURTO ESIKO zuzendari gerentea

izpiz: MICHOLO GONZALEZ TORRES